



zumardia

natura · hezkuntza · kirola



zumardia

natura · hezkuntza · kirola

Proiektuaren atal nagusiak



Sorrera - Zergatia

Zumardia elkarteak osatzen dugunok kirolaren alderdi ludikoa eta hezitzailea sustatu nahi dugu. Giro hezitzaile, lagunkoi eta dibertigarrian bizitzeko aukera bultzatu nahi dugu eta inguruko pertsona guztiei zabaldu nahiko genieke, berdin neska ala mutil, ume, gazte nahiz heldu izan.

Gure inguruan dagoen kirol eskaintza, ugaria eta zabala da, baino adin batetik aurrera konpetiziora eta lehiakortasunera zuzentzen da batez ere. Kirola egitearen plazerra baino gehiago, errendimendua eta emaitzen lorpena bilakatzen dira helburu nagusienak. Kirol eredu honek, egoera fisiko ahulagoa eta abilezi motriz garatuegia ez dituzten pertsonak baztertzeko joera du.

Natura, Kirola eta Hezkuntza batzen duen egitasmoa da hau, naturaren ezagutza eta errespetua, giza balioak, parekidetasuna eta elkarlana lantzen dituen proiektua.

Baliabide hezitzaileak



Helburuak

Zumardia elkartearen oinarrizko helburuak honakoak lirateke:

- **Aisialdi eta bizitza aktiboa sustatu.**
- **Kirolaz gozatuz, pertsonen garapen pertsonalean zein euren arteko harremanetan ahaldundu eta komunitate osoarekiko balore errespetagarrietan hezi. (Elkarlana, parekidetasuna, enpatia..).**
- **Naturan praktikatu daitezken kirol eta ekintzak, ume, gazte eta helduen artean zabaldu.**
- **Pertsona, elkarte, enpresa eta administrazioen arteko sarea sortu, partehartzea, elkarlana eta ekonomia solidarioa sustatuz eskualdeko biztanleen ingurua eta bizi kalitatea hobetzeko.**
- **Tolosaldeko eta Euskal Herriko balore historikoak, kulturalak eta naturalak ezagutarazi, zabaldu eta babestu, bertako baliabideak indartuz eta ekoturismo aktibo arduratsua bultzatuz.**
- **Euskeraren ezagupena eta erabilpena bultzatu, eguneroko komunikazio eta harremanetan erabiliz eta lehenetsiz.**

Ekintzak. Jardueren proposamena

- **Natur inguruko kirol eta ekintzen irakaspena, formazio eta aholkularitzarako gune iraunkorra sortu.** Bertan, ikastaro, tailer, jardunaldi eta topaketa desberdinen bitartez, honako arloen ezagupena bultzatuko dugu besteak beste;

1. Eskalada- oreka, espeleologia, slack line.
2. Mendizaletasuna, orientazioa, senderismoa.
3. Piragua, paddle surf...
4. Bizikletaren ezagupena, mantenua, bide heziketa, mugikortasun iraunkorra.
5. Ipar eskia, mendiko eskia, elurretako erraketak.

- Tolosaldeko ikastetxeen eskutik, **Eskola Kirola** programan, natur inguruko kirolak eta heziketa kooperatiboa txertatzeko ekimena martxan jartzea.

Ekintzak. Jardueren proposamena

- **Kirol materialaren alokairua eta material gordelekuaren kudeaketa.**
- **Pertsona, elkarte, enpresa eta administrazioen arteko sarea sortu, partehartzea, elkarlana eta ekonomia solidarioa sustatuz eskualdeko biztanleen ingurua eta bizi kalitatea hobetzeko.**
- **Euskal Herriko balore historikoak, kulturalak eta naturalak ezagutarazteko ekintzak abian jarri, **ekoturismoa aktibo** arduratsua bultzatuz. Mendi ibilaldiak, bisita gidatuak, egonaldiak, ibilaldien diseinua, kudeaketa eta mantenimendua.**
- **Ingurumenaren balioak zabaltu eta babesteko ekintzak; Sensibilazio kanpainak, hitzaldiak, publikazioak, jardunaldiak, inguru naturalen garbiketa eta berreskuratze lanak,..**

Nori zuzendua. Partehartzaileak

Proiektuaren ekintzak honako partehartzaileei zuzentzen zaizkie:

- **Eskola-kirola** programaren bidez Tolosaldeako 8-12 urteko umeei.
- Tolosaldeako Kirol Talde zein elkarte guztiei.
- Tolosaldeako ikastetxeei.
- Zuri, neri, guri... Inguruko pertsona guztiei:
berdin neska ala mutil, ume, gazte nahiz heldu.

Non / Zer. Tolosa

Tolosaldea, Gipuzkoako bihotzean kokatzen den eskualdea da. 28 herritatik, Tolosa da hirigune handiena eta bertan kokatzen dira industria, komertzio eta zerbitzu gehienak. Elkargune estrategiko garrantzitsua bihurtu da hainbat arlotan.

Guzti hau horrela izanda, gure egitasmoa aurrera eramateko **abiapuntua Tolosan** kokatu nahi dugu eta handik eskualdeko beste herri eta eremuetara **zabalduko** genituzke gure ekintzak, irteerak, ibilaldiak...

Tolosan 2 gune aurreikusten ditugu:

Zumardi Haundia.

Oria ibaia.

Kokaguneak. Zumardi Haundia

ZUMARDI HANDIA, biziberritzen ari den espazio naturala da.

- Tolosa eta Ibarra arteko “zubi naturala” da. Bi herrien erdi-erdian dago eta natur inguruko ekintzak garatzeko toki paregabea bilakatu da.
- Oria eta Berastegi ibaietarako sarrera naturalak ditu.
- Irisgarritasun aldetik egokia da.
- Bidegorria bertaraino eta bertatik pasatzen da.
- Eskola Kirola kasuan, gune neutroa. Ikastetxe ezberdineko ikasleak elkartzeko gune egokia, guztiona izango den kokagunea.



Kokagune honetan; eraikin modularren bitartez eginiko aula-tailerrak aurreikusten ditugu.

Kokaguneak. Zumardi Haundia

Bertan mendia eta bizikletarekin harremana zuzena duten ekintzetako teoriak erakutsiko dira.

1.- Mestia: Orientazioa, Paisaiaren irakurpena, mendizaletasuna, iraupen eskia, prebentzioa eta segurtasuna mendian...

2.- Eskalada-Oreka, Slackline, Espelologia, ...

3.-Bizikleta. Bide hezkuntza, errepidean eta bidegorrian ibiltzeko gomendioak, bizikletaren mantenua... Mendiko bizikleta, errepidekoa, paseoko bizikleten arlo teoriko eta praktikoa.



Bizikleten TAILERRA.


Bizikletantzako tailer txiki bat aurreikusten dugu. Bertan, bizikletak garbitu eta oinarrizko mantenua emateko behar diren herramienta eta materialak izango dituen.

Bizikleten TOPAGUNEA.

Bertan mendia eta bizikletarekin harremana zuzena duten ekintzetako teoriak erakutsiko dira.

Kokaguneak. Oria Ibaia - Piraguismoko gunea

- Gune honetan uretako kirolen arlo teorikoa eta praktikoa eskainiko da. Piraguismoa, Paddle surf,...
- Bestetik, aldagela, biltegia eta piraguen gordelekua egokituko da bertan.
- Piraguen alokairu zerbitzua ere eskeiniko da eta bazkideentzat, zerbitzu hori dohakoia izango da urte osoan.



Proiektuaren sorrera eta hehen urratsak. 2015-2016

2015 urtea. Elkartearen sorrera

- Hainbat hilabeteetako bileren ondoren, 2015eko neguan ZUMARDIA elkartearen sorrera da Tolosan, irabazi asmorik gabeko elkarte bezala.
- Natura, Kirola eta Hezkuntza uztartuz, “Naturan, kirolaz hezi eta bizi” proiektuaren oinarriak eta ardatzak marrazten dira; Bizitza aktiboa, natur inguruko kirolak, elkarlana, balio hezitzaileak, pertsona guztientzako proposamena, espazio irekia...
- Ekimena udaletxeko Kirol batzordean eta alkatetzan aurkezten da eta bitartean beste pertsona, elkarte, ikastetxe eta taldeekin zabaldu eta konpartitzen dugu.

2016ko apirila. Tolosako Udalarekin hitzarmena

- 2016ko apirilean Tolosako Udalarekin sinatutako akordioak, Proiektua martxan jartzeko aukera ahalbidetzen du eta elkarlanerako ateak zabaltzen ditu. Zumardiandia eta La Selva eremuak erabiltzeko aukera ere baimentzen du.
- Tolosako udalak utzitako espazio eta guneak egokitzen hasten gara, eta Proiektu Pilotoa martxan jartzeko, Oargi elkartearen rokodromoa erabiltzeko akordioa lotzen dugu ere.
- Begiraleen formazio saioak martxan jarri eta materialak eskuratzen ditugu (piraguak, txalekoak, orientazioko materiala, eskalada eta oreka...).

2016ko Maiatza. Eskola Kirolako Proiektu Pilotoa.

- Bidelagun izan diren Tolosako udaletxe, elkarte, ikastetxe, eta begiraleen babesarekin 2016. urteko udaberrian “Naturan, kirolaz hezi eta bizi” Proiektu Pilotoa abian jartzen da. Tolosaldeko Eskola Kirolako egutegian, natur inguruko kirolen moduloa txertatzen da, maiatzeko 4 larunbatak erabiliz.

- Tolosaldeko Ikastetxe guztiei zuzendutako eskaintza da (Pribatuak, publikoak...)
- Ikastetxe eta Herri desberdineko ikasleak elkarrekin jolasean eta ikasten.
- Neskak eta mutilak batera.
- Elkargune berri batean. Zumardi handia eta Oria ibaian.

Datak: Maiatzaren 7, 14, 21, 28. 9.00tatik - 14:00tara / Egunero 90 minutuko 3 saio.

Bultzatzailea: Tolosaldeko ikastetxeak, kirol koordinatzaileak, eta begiraleak, Tolosaldeko kirol teknikariak, Tolosako Udala, Zumardia elkarte eta hainbat eta hainbat lagun.

Partaideak: 9-10 Urteko 250 ume. (LH3 eta LH4).

Tolosa (Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeak) Ibarra, Anoeta, Irura, Alegi, Altzo, Ikaztegieta, Berrobi...

Begiraleak: Tolosako 3 ikastetxeetako Eskola kirolean aritutako 15 begirale + ZUMARDIA elkarteko 7 partaide.

2016. urteko UDA KANPAINA. Autogestiorako lehen urratsak.

2016 urteko udaran, Zumardia elkarteak, ikastaro berrien proposamena luzatzen du. Autogestiorako lehen urratsak izan daitezke.

Noiz: 2016ko Ekainaren 20ean hasi eta Uztailaren 29ra bitartean.

Partaideak: 8 - 14 urteko ume eta gazteak.

Begiraleak: 6 Kirol Hezitzaile.

Bultzatzailea: Zumardia elkartea.

Eskaintza:

1/ English kayak camp.

5 egunetako kayak ikastaroa, ingelesa praktikatzen (90 minutu egunean).

39 partaide. (8 - 14 urte bitartekoak)

2/ BTT ikastaroa.

5 egunetako BTT ikastaroa. Igoera, jeitsiera teknikak, mekanika...(90 min. egunean)

31 partaide. (12 - 14 urte bitartekoak)

3/ Natur Kirol Multzoa.

10 egunetako kirol eskaintza, 90 minutu egunean.

Bizikleta, orientazioa, piragua, eskalada, slack-line eta mendi ibiladiak.

67 partaide (8 - 14 urte bitartekoak)



Elduaingo Udaletxea. 2016. urteko Udako Kanpaina .

Elduaingo Udaletxeak eta herriko guraso elkarteak horrela eskatuta, Uztailean zehar, Natur inguruko kirolen udalekuak antolatu genituen bertako ume eta gazteentzako. (Bizikleta, orientazioa, eskalada,slack-line eta piragua saioak).

Noiz: 4 egunetako udalekoak izan ziren. (Uztaileko asteazkenak).

Non: Elduainen.

Partaideak: 18 partaide (6 - 16 urtetako ume eta gazteak).

Bultzatzailea: Elduaingo guraso elkartea eta Zumardia elkartea.

Begiraleak: 3 Kirol hezitzaileak.



2016ko iraila. BTT ikastaro trinkoak.

Udako parte hartzea ikusita, irailean ere eta ikastetxeetako klaseak hasi bitartean, BTTko hastapen ikastaroak antolatu genituen. Igoera, jeitsiera teknikak, mekanika... (120 min. egunean)

Noiz: 2016ko Irailean. 4 ostiraleko ikastaro trinkoa.

Partaideak: 30 partaide. 2 talde. 10 - 14 urteetako ume eta gazteak.

Bultzatzailea: Zumardia elkarteak.

Begiraleak: 3 Kirol Hezitzaile.

2016ko iraila. Begiraleentzat Eskimotaje ikastaroa (Kayak)

Zumardia elkarteko begiraleei arlo teknikoa eta pedagogikoa lantzeko formazio saioak martxan jarri nahi ditugu, ezinbestekoak ikusten ditugu eta. Hori horrela izanda, 2016ko irailean Kayak-eko tekniketari sakonduz, eskimotaje ikastaro trinkoa antolatu genuen begiraleentzako. Usabal kiroldegiko kanpoko igerilekuan. Uda kanpaina bukatutzat eman eta gero, Usabal kiroldegiko kanpoko igerilekuak erabili genituen Zumardia elkarteko begiraleen formazio teknikoa sakontzeko.

Noiz: 5 egunetako ikastaroa. udalekoak izan ziren. (Uztaileko asteazkenak).

Non: Usabal kiroldegian.

Partaideak: 6 partaide.

Bultzatzailea: Zumardia elkarteak.

Begiraleak: 1 Kirol hezitzailea.

2016-17ko negua. Familientzako iraupen eski ikastaroa.

Noiz: 2017ko Urtarriletik Martxora.

Non: Somporteko eski estazioan.

Bultzatzailea: Zumardia elkarteak.

Partaideak: 100 partaide inguru.

Begiraleak: Zumardia elkarteko 8 begirale.

2017ko otsaila. Monoziklo Ikastaroa.

Noiz: 2017ko urtarrilaren 21ean Ate irekien eguna.

2017ko otsailaren 7, 9 eta 10ean . Ikastaro Trinkoa.

Non: Tolosako Zerkausian eta Kultur Etxean.

Bultzatzailea: Orekan Bizi Naiz elkarte eta Zumardia elkarte.

Partaideak: Ikastaroan 20 partaide.

Begiraleak: Orekan Bizi Naiz elkarteko begiraleak eta Zumardia elkarteko laguntza.



2016ko iraila. 2016-2017 ikasturteko Eskola Kirola

2016ko udaberrian abiatutako Proiektu Pilotoari jarraipena emateko, 2016-2017 ikasturtean, Natur inguruko kirolen eskaintza, Tolosaldeko Eskola Kirola Programan txertatzeko ekimena zabaldu genuen hainbat berrikuntzekin:

- LH3 eta LH4ko ikasleetaz gain, LH5 eta LH6ko ikasleentzako eskaintza ere zabaldu dugu.
- LH3 eta LH4ko ikasleei, iraileko 3 larunbatetan eskaini zitzaizkien saioak.
LH5 eta LH6koei berriz, urrian eta asteen zeharreko saioetan barne. (17:30 - 18:30).
- Eskola Kiroleko saioak irailea eta maiatzean eskainiko dira. (6 saio ume bakoitzeko).

Noiz: 2016ko Iraila eta Urrian.

Irailaren 10, 17, 24 larunbatak. 9.00tatik - 14:00tara / Egunero 90 minutuko 3 saio.

Urriaren 4,11,18,25 astearteak 17:00tatik - 19:00tara. 90 minutuko saio bat.

Urriaren 6,13,20,27 ostegunak. 17:00tatik - 19:00tara. 90 minutuko saio bat.

Bultzatzailea: Tolosaldeko ikastetxeak, kirol koordinatzaileak eta begiraleak, Tolosaldeko kirol teknikariak, Tolosako Udala, Zumardia elkarte eta hainbat eta hainbat lagun.

Partaideak: 9-10 Urteko 250 ume. (LH3 eta LH4) eta 11-12 urteko 250 ume (LH5 eta LH6)

Tolosa (Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeak) Ibarra, Anoeta, Irura, Alegi, Altzo, Ikaztegieta, Berrobi...

Begiraleak: Tolosako 3 ikastetxeetako Eskola kirolean aritutako 15 begirale + ZUMARDIA elkarteko partaideak.

Etorkizunerako erronka berriak

Egindako bideari jarraipena emanez, Natur inguruko kirolak eta jarduerak zabaltzeko proposamena luzatu nahi dugu aurrerantzean. Iazko eskaintzari, (Eskola Kirola, Udako kanpaina, iraileko ikastaroak), ikastaro berriak gehituko diegu eta adin desberdinetara zuzenduak izango dira.

Bestaldetik, La Selva eta Zumardiako gunek egokitu nahi ditugu, gure eskaintza modu egokienean egin ahal izateko eta pertsona guztiei zabaldu espazioa hauek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Edozein pertsonaren eskura egongo den piraguen gordelekua martxan jarri nahi dugu. Kayak bat duen edonork, aukera izango du bertan bere materiala gorde eta bide batez eskuragarri izateko.

Bide batez, Zumardia elkarteko materiala (kayak, txalekoak, palak,) alokatzeko aukera egongo da eta bertako ekipamendua laister zabalduko da formula desberdinak erabiliz. (Alokairua, Familiako edo banakako Bazkide txartelak, hitzarmenak...).

Honekin batera Zumardia elkarteko Bazkidearen figura sortu nahi dugu, ikastaroetan eta ekintzetan parte hartzen duten pertsonen elkartean parte izateko. Familientzako txartela eta banakakoa ere sortu nahi dugu. Bazkideek lehentasuna eta deskontua izango lukete ikastaroetan.

Eskola-kirol hezitzaileak

Kirol guzti hauen lanketa teknikoari baino garrantzi gehiago arlo pedagogikoari eman nahi zaio honako atalak landuz:

1.- Giza-garapena eta gizakiaren psikologiari buruzkoa. Gizakiaren auto-estimuan, auto-ezagutzan eta auto-erregulazioan eragiteko. Gizakia ulertu, bere funtzionatzeko moduak ezagutu eta bere gaitasunen garapen erabatekoa lortzeko bidean mugak ez ezartzea ezinbesteko tresna direla uste dugu.

2.- Komunikazio ez bortitzaren bidetik, gazteak ulertu eta enpatizatzen saiatu. Bakoitzaren sentimenduak eta beharrak aztertzeke mekanismoak ezagutu, soluzio bideak topatuz eta hauek egokiak diren baieztatuz.

3. Gatazken prebentzioan, taldeko giroan eragin dezaketen faktoreak ezagutu eta talde kohesioa bultzatzeko dinamika eta garrantzia bultzatu.

4. Heziketa kooperatiboari buruzkoa. Zein jarduera eta egitura kooperatibo gara daitezke lehiakortasuna alde batera utzi eta irabazleirabazle binomioa sustatzeko?

Bazkide txartela

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!! zergatik?

ZUMARDIA proiektua babestu eta bultzatzeko.
Ikastaro eta ekintzetan %10ko deskontua izateko
Urte osoan piraguak dohan erabiltzeko aukera izango duzulako.

Banakako txartela.	5€ hilabetea	60€ urtea.	50€
Familiako txartela	10€ hilabetea	120€ urtea.	100€

ZURE PIRAGUA ERABILI NAHI DUZU?

Garajetik atera eta Oria ondoko gordelekura ekarri. (50€ko kuota urtean).
Eta beste bazkideei erabiltzejo aukera eman ezker, gordelekuko kuota dohan.

Bizi berria eman, gordeta dagoen materailari!!



www.zumardia.eus

info@zumardia.eus

Tel: 688 726 214